

BETIKO IKASTOLA

0-16 URTE



GIDA

BETIKO IKASTOLA
Artatza auzoa, 84
48940 Leioa (Bizkaia)
Tel. 94 464 23 64
info@betikoikastola.eus



1 GURE IKASTOLA

ZER GARA?

Leioako Ikastola bakarra gara. Betiko Ikastola herri ekimenez sortutako **guraso kooperatiba** gara, Euskal Herriko Ikastolen elkarteko partaidea eta administrazioarekin ituna duena. **Euskara eta Euskal kulturarekin konprometituta** eta, aldi berean, beste kulturetara irekia.

Aldatzen ari den gizartean, etengabeko hobekuntzaren bidez eta partaide guztien **elkarlanean** oinarrituz, **0-16 urte bitarteko** haur eta gazteei kompetentzietan oinarritutako hezkuntza eskaintzen diena gara.

NORA GOAZ?

Kalitatezko euskal hezkuntza eskaintzen duen erreferentziazko ikastola izan nahi dugu. Honetarako eremu hauek garatuko ditugu:

EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA

Euskararen erreferente izan nahi dugu

IKASLEA ARDATZ

Ikaslea Ikastolako ardatza.

BAZKIDEAK

Ikaslearen heziketa prozesuan familiekin bidelagun izan eta familiaren partaidetza, inplikazioa eta izaera kooperatiboa indartu.

LANGILEAK

Erronkei eta aldaketei aurre egiteko koordinazioa, elkarlana eta etengabeko formazioa.

BERRIKUNTZA

Gaur egungo gizartearen beharrei erantzuteko eta XXI. mendeko ikastola eredua irudikatzekeo jarrera berritzailea eta ikertzailea izan.

ETORKIZUNA

Euren seme-alabentzako ikastola aukeratzen duten herritar orori erantzuna eman.

HERRIA

Herritarrok herritik eta herriarentzat sortutako eta zuzendutako proiektua da gurea. Herri ekintzetan eragile eta parte hartze aktiboa izatea dugu helburu.

BALOREAK:



hobekuntza irekia
lana iniziatiba konfiantza
Taldea laikotasuna kritikoa
Empatia Eraldatzailea Sormena
Kulturartekotasuna
Euskaltzasuna
Herriarra kooperatiboa Talde lana
Errespetua
ausardia





EUSKALTZALETASUNA:

Euskararen erreferente izan nahi dugu, horretarako euskaraz bizitzera eta euskal kulturaren igorle eta bultzatzaile izatera konprometitzen gara. Hori izan zen orain dela 50 urte baino gehiago gure sorreraren arrazoirik nagusiena eta gaur egun ere horretan gaude lanean hezkuntza komunitateko kide guztiok. Helburu hau lantzeko modu sistematiko batean bi lan talde ditugu: hizkuntza proiektua eta euskaraz bizi. Euskara ardatz nagusiena izan arren, gure ikasleak eleanitzak izatea nahi dugu eta hizkuntzak era integratu batean lantzen ditugu gure hizkuntza proiektuan, beraz gaztelaniak, ingelesak eta frantsesak beraien espazio propioa daukate bertan.



ERRESPETUA ETA KONFIANTZA:

Besteenganako, norberarenganako eta inguruarekiko errespetua eta konfiantza. Giro ona eta atsegina lortu nahi dugu gure ikastolan. Hainbeste pertsona elkarrekin egotean hain denbora luzean, gure artean gatazkak sortzea guztiz arrunta da, bizitzaren eta hezkuntzaren atal garrantzitsua izanik. Horregatik gure artean aniztasunaren errespetuan oinarritzea funtsezkoa da.

Bizikidetzeta positiboa lortzeko programa desberdinak ditugu:

- **BIZIKIDETZA:** Norbera izaten ikasi eta elkarrekin ingurune inklusibo batean bizitzen ikasteko konpetentziak guztiz beharrezkoak dira gure bizikidetzako proiektuan. Horretarako, HHtik DBHra astean saio bat daukagu adimen emozionala garatzeko estrategiak emateko eta horrez gain zehar lerro moduan ere lantzen da beste ordu guztietan.
- **TUTORETZA:** egunerokotasunean sortzen diren gatazkak bideratzeko, parte-hartzaileak izateko, erabakiak hartzeko plana da. Tutore eta ikasleen arteko harreman estuari garrantzi handia ematen diogu.

- **KIVA:** Lehen hezkuntzako lehengo mailatik aurrera jazarpenaren prebentziorako lantzen dugun programa bat da. Prebentzioaz gain, jazarpena ematen denean, modu eraginkor batean bideratzeko protokolo zehatza dugu.
- **HEZKIDETZA:** Genero ikuspegia lantzeko eta gure ikasleak gizartearen eta beraien jarreraz gai honen inguruan kontzientek izan daitezen proiektua daramagu martxan.
- **AGENDA 21:** ingurua eta natura baloratzeko, errespetatzeko eta kontzientzia hartzeko programa da.



TALDE LANA:

Talde lana: gure ikasleak, bakoitza ahalik eta gehien garatzeko, guztion artean baldintza egokiak sortzen ditugu, aniztasuna errespetatuz, etapa eta proiektuen artean koherentzia egonik eta eraldatzaileak izanik. Horretarako elkar entzuten dugu, enpatia jorratzen dugu eta adostasunez erabakiak hartzen ditugu.

KONFIANTZAREN PEDAGOGIA

Haurrak txikitatik berarekin dakartzan **berezko gaitasunak** (ekiteko ahalmena) askatasunez garatu eta aberasten laguntzen dion pedagogia da geurea. Konfiantzan oinarritzen dena.

Geure haurrek zailtasunak kudeatu eta beraien gaitasun guztiak garatu ahal izateko, **KONFIANTZA** izan behar dute bere buruarengan, besteengan eta inguratzen dituen horretan.

Betikon, **Haur Hezkuntzan (0-5)** argi daukagu haurrak bere baitan daukala pertsona gisa garatu eta zoriontsu izateko ahalmena. Horregatik, berezkoak dituen gaitasun horiek garatzeko, espazio euskaldun, zabal, seguru eta aberats baten alde egiten dugu. Haurren **autonomia eta interakzioa** bultzatzen dituen. Beraien jolasa eraikitzeko aukera ematen diena. **Eginez eta gozatuz** ikastera gonbidatzen dituen,

Konfiantza hori eraikitzen laguntzeko, **hezitzaileen egitekoa** baldintza egokiak sortzea da. Horretarako, haurren **zaintza, behaketa eta sentikortasuna** gakoak izango dira. Eskaintza horri esker, gure txikiek bizitzarako horren beharrezkoak diren gaitasunak modu **osasuntsu eta aberasgarri** batean garatzen dituzte.

“jolasten ikasteko eta ikasten jolasteko”



PROIEKTUA

6-12 ADINA

L4

TALDE LANA

Geure ikasleak bere ikasketa prozesuaren subjektu aktibo izatea dugu helburu eta bide honetan, taldean lan egiteko gaitasuna lantzea.

Lehenengo ziklora dagoeneko konfiantzaren pedagogia heldu da. Haur Hezkuntzan hasitako bideari jarraituz.

Bigarren zikloan, eraldaketa prozesuan hasita gaude, proiektuak gero eta garrantzi gehiago hartuz, eremu manipulatioa nabarmenduz eta ulermenean sakonduz.

Hirugarren zikloan, konpetentzietan oinarrituta, integrazioaren pedagogia dugu ardatz (EKI). Ikasleek egoera zehatz batetik abiatuta taldean zein bakarka proiektua garatzen dute. Bere ikasketa prozesuaren jabe eginez.

“Esaiñazu, eta ahaztuko dut; erakutsiñazu, eta gogoan hartuko dut; parte hartzen lagun nazazu, eta ikasiko dut.”

DBH

ADINA 12-16

KONPETENTZIE TAN OINARRITUTAKO PROIEKTUA

EKI proiektuak konpetentzietan oinarrituta dagoen Euskal Curriculuma garatzen du integrazioaren pedagogiaren bitartez.

Ikasleak egoerei irtenbideak aurkitzen ikasi behar du, ikasitakoa egoera berrietan transferitzeko eta baliatzeko. Benetako egoera esanguratsuen aurrean jarrita, ikasleek egoera horietan behar dituzten baliabideak bilatzen, aukeratzen eta erabiltzen ohitu behar dute; irtenbideak aurkitzen saiatu, bakarrik eta talde lanean aritu, arazoaren soluzioa erdietsi eta egoera berrietan ikasi dutena baliatu. Ikas arlo guztietan prozedura sistematizatuak errazten dira, ikasten eta egiten jakiteko, autoerregulazioari eta ebaluazio hezitzaileari garrantzia emanez, irakaslea bidelaguna izanik.

Ikasleek ICTren konpetentzietan eta ezagutzan sakon dezaten, euskarri desberdinetan aurkezten da EKI proiektuaren materiala, paperean eta digitalean.

“Zailtasunetan ikasiz, jausi orduko berririo jaikiz; helmuga begi bistan, ume ginenok heldu gara.”

4 ZERBITZUAK



AUTOBUS ZERBITZUA

(2 urtetik aurrera)

Sarriko, San Inazio, Erandio, Leioa, Getxo, Sopela



HAURTZAINDEGI ZERBITZUA

Ordutegi zabala 08:00-18:30

Egutegi zabala OPOR EGUNETAN ERE



ESKOLAZ KANPOKOAK

(Eguerdia eta arratsaldetan).

Bertsolaritza, Eskulanak, Ingelesa, Kirolak...



SUKALDE PROPIOA

Betiko ikastolako sukaldariak bertoko produktuak bertoko denda txikietan erostea dute lehentasuna. **Km 0** filosofiarekin bat egiten dugu eta sasoian sasoikoa kontsumitzen dugu.

Arrainari dagokionez, beharrezko baldintzak betetzen dituen Pasaiaiko arrain kooperatiba batekin elkartu gara, Ikastolako bazkalkideari arrain freskoa eskaintzeko.

Jantokia, **eremu hezitzailea** da eta menu bereziak egiteko aukera dago.

HORREZ GAIN...

GURASO KOOPERATIBAREN BEREZITASUNAK



- KUDEAKETA PROPIOA

Familia bakoitzak 40 lan ordu bete behar ditu ikastolarako ikasturte bakoitzean. Lan ordu horiek betetzeko aukera ezberdinak daude:

1/ Jantokiko officean eguerdiko ordutegian

2/ Hilean behin mantenu lanetan

3/ Autobuseko zerbitzuan laguntzen, egunero 16.15etatik aurrera

4/ ...

- JANTOKIA ALOKATZEKO AUKERA (Bazkideak)



Leioako ikastola bakarra gara,
Artatza auzoko parkean kokatua.

HELBIDEA:

Artatza auzoa 84, Leioa.
48940 Bizkaia



BETIKOIKASTOLA.EUS

